

## La Mare - 'Del Fuego' gira

Genero-berdintasunari buruzko zikloa

Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

2024ko apirilaren 25a

20:00ean

5€



**Vital Fundazioak** antolatzen duen '**Genero Berdintasuna**' zikloa erritmoen eta estiloen fusioaren eskutik iritsiko da bere hurrengo hitzordura, **La Mare** Cadizko kantautorearen kontzertua izango da **Vital Fundazioa Kulturuneako** agertokian. Madrilen bizi da abeslaria, eta han, hainbat proiektu musikal, artistiko eta sozialetan hartzen du parte. Poesia eta sustraiko erritmoak maite ditu, eta bere musikak mezua barra-barra du.

## Informazioa

Proposamen musikal horrek eskaintza poetiko oso batekin egiten du bat, bere letrak identitate-zigilu dituela. Freskotasuna eta sakontasuna sintonia ezin hobean, umorearen zentzuaren erabilera bikainaz atondua. Artistak emozioen unibertso batean zehar eramaten gaitu bere abestien bidez: maitasuna eta, batez ere, norberaganako maitasuna, borroka soziala, dena aldatzeko gogoa, norbere buruaz barre egitea eta hainbeste aldiz gainditzen gaituen bizitza honetan bizirik irautea.

Bere ibilbide musikarekin batera, La Marek hainbat proiektu sozio-artistiko bultzatu ditu, musikaren eta artearen bidez pertsonak ahalduntzearen eta garatzearen alde lan eginez. Tailerrak, monografikoak eta iraupen luzekoak dinamizatu ditu hainbat espaziotan (espetxeetan, berdintasunerako guneeetan, institutuetan) eta hainbat kolektiborekin.

Gaur arte, La Mare musikariak hainbat artistarekin partekatu ditu musika eta agertokiak, hala nola Rozalén, La Pegatina, La Mari de Chambao, Pedro Pastor, El Jose, Mr. Kilombo, La Otra edo María Ruiz.

## Sarrerak

**Sarrerek** 5 euro balio dute eta salgai daude [www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus) webgunean eta Vital Fundazioaren egoitzan (Kordoi Etxea) edo, emanaldiaren egunean, Vital Fundazioa Kulturuneako leihatilan (Bakea kalea 5, 1. solairua), saldu barik geratuko balira.

# SOLD OUT

---

**Fundación Vital Fundazioa**

Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz

945 776 858

[info@fundacionvital.eus](mailto:info@fundacionvital.eus)